



MEMORIA

ZINE ²⁰₂₄

GOAK

WWW.ZINEGOAK.COM

Bilboko LGTBIQ+
21. Nazioarteko Zinema
eta Arte Eszenikoen Jaialdia

21º Festival Internacional
de Cine y Artes Escénicas
LGTBIQ+ de Bilbao

21st Bilbao International
LGTBIQ+ Film and
Performing Arts Festival

MEMORIA

ZINE GOAK

WWW.ZINEGOAK.COM

Bilboko LGTBQ+
21. Nazioarteko Zinema
eta Arte Eszenikoen Jaialdia

21º Festival Internacional
de Cine y Artes Escénicas
LGTBQ+ de Bilbao

21st Bilbao International
LGTBQ+ Film and
Performing Arts Festival

| | |
|---|----|
| ZINEGOAK 21 EDIZIO BILBON ETA... 21 EDICIONES EN BILBAO Y... | 3 |
| SARRERA ETA HELBURU OROKORRA INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO GENERAL | 4 |
| OHOREZKO SARIA PREMIO HONORÍFICO CLARISA NAVAS | 5 |
| 3,2,1...ZINEGOAK! | 6 |
| EGITARAUA PROGRAMACIÓN FIK DOK KRAK | 7 |
| EGITARAUA PROGRAMACIÓN BEGIRADAK | 8 |
| EKINTZA BEREZIAK ACTIVIDADES ESPECIALES | 9 |
| EZTABAIDA ETA HAUSNARKETA ENCUENTROS DEBATE Y REFLEXIÓN BILGUNE | 10 |
| ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS | 11 |
| EKITALDIAK GALAS | 12 |
| ZGPRO | 13 |
| ZINEGOGOAK | 14 |
| ZG HEDAPENA | 15 |
| ZINEGOAK ZENBAKITAN EN NÚMEROS ÉXITO Y ALCANCE | 16 |
| OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO EN LOS MEDIOS | 18 |

ZINEGOAK 21 EDIZIO BILBON eta PROIEKTUAK... 21 EDICIONES en BILBAO y PROYECTOS en...

Araba

Amurrio • Aramaio • Artziniega • Berantevilla • Laudio • Urkabustaiz • Zigoitia

Bizkaia

Abadiño • Amorebieta Etxano. Bakio • Balmaseda • Barakaldo • Basauri • Bermeo • Durango • Galdakao • Getxo • Igorre • Leioa • Lekeitio • Lezama • Mallabia • Markina - Xemein • Mungia • Ondarroa • Plentzia • Portugalete • Santurtzi • Sestao • Sopela • Zalla •

Gipuzkoa

Aduna • Anoeta • Arrasate • Astigarraga • Azkoitia • Azpeitia • Bergara • Deba • Donostia • Eibar • Hernani • Lazkao • Legazpi • Legorreta • Oiartzun • Oñati • Ordizia • Orio • Tolosa • Urretxu • Usurbil

Nafarroa

Baztan • Bidaurreta • Oltza Zendea Cendea de Olza • Tafalla



LAN ILDOAK DITU: QUE TRABAJA POR...

1 Tratu-berdintasuna, sexu-, identitate- eta/edo genero-askatasunarekiko errespetua eta bizikidetzaren sustapena kulturaren bidez: zinema, antzerkia, literatura, musika eta LGTBIQ+ proiektuen sorkuntza.

Fomentar la igualdad de trato, el respeto a la libertad sexual, de identidad y/o de género, y la convivencia a través de la cultura: el cine, el teatro, la literatura, la música y la creación de proyectos LGTBIQ+.

2 Elkartu, laguntza eskaini, hausnartu eta eztabaidatzea

Ser plataforma y espacio de encuentro, apoyo, reflexión y debate

3 Biztanleriaren sektore guztiak sensibiltatzea eta inplikatzearrera pertsona gazteenengan eta biztanleria seniorrengan jarritz.

Sensibilizar e implicar a todos los sectores de población poniendo el foco en las personas más jóvenes y en la población senior.

4 Sortutako lurraldean sare bat zabaltzea (50 udalerrri baino gehiago Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, estatuko eta nazioarteko konexioak, LGTBIQ+ Europa Hegoaldeko Jaialdien Sarearen parte izanik).

Extenderse por el territorio creado un red (+ 50 poblaciones entre Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, conexiones estatales e internacionales, formando parte de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur).

SARRERA ETA HELBURU, OROKORRA INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO GENERAL

Zinegoak hazten ari da, eta erronka berriei eta errealitate berriei egokitzeko saiakeran dihardu. Izan ere, kultura-jarduera garrantzitsua izateaz gain, gizartea eraldatzeko tresna sendoa da. Gaur egun, 21 edizioren ondoren, Zinegoak erreferente bihurtu da estatu mailan eta nazioartean, eta programazioan filmak, obra eszenikoak, dantza, errezitaldiak, liburuen aurkezpenak, mahai-inguruak, industria-gune bat eta sexu-aniztasunaren inguruko proiektu hedatuak ditu.


Zinegoak 2024k gizartean dauden gogoeta nagusietako batzuk entzun ditu, eta aretoetara eraman ditu hainbat proposamen kulturalen bidez, nor garen eta nola bizi nahi dugun erabakitzeko askatasuna eta zilegitasuna aldarrikatuz. Hori guztia sexu-aniztasunari eta sexu-orientazioari, genero-identitatearen eraikuntzari edo sexualitateari lotutako beste edozein elementuri irekitako ikuspegitik, arreta identitate aldakorretan jarriz eta generoa aldatzeko eta deskubritzeko lekua dela ulertuz.

Zinegoaren 21. edizioa ekainaren 24an hasi zen ofizialki, Arriaga Antzokian egin zen irekiera ekitaldiarekin, eta uztailaren 1ean amaitu zen, astelehenean, sari banaketarekin eta jaialdiaren amaierarekin. Hasiere ofiziala eman aurreko asteburuan 3,2,1... Zinegoak! ospatu genuen. Ondoren, uztailaren 3tik 5era arte, modu birtualean gozatu ahal izan zen sail ofizialaren zati batez eta sail paralelo batzuek Zinegoaren kanalean, Filmin plataformaren barruan. Gainera, uztailaren 1etik 3ra, FILMIN plataforman programazioaren zati batez (sail ofizialeko eta sail osagarrietako film batzuk) gozatu ahal izan da modu birtualean. Horrez gain, EITBrekin zabalduetako lankidetzak akordioari esker lehen aldiz PRIMERAN plataforman ZINEGOAK kanala aktibatu da, LGTBIQ+ edukia dituzten euskarazko pelikula ahalik eta publiko handienari helarazteko.

Zinegoak crece y se adapta a los nuevos retos y realidades siendo no solo una importante actividad cultural, sino una rotunda herramienta de transformación social. Hoy, tras 21 ediciones, Zinegoak se ha convertido en un referente a nivel nacional e internacional que cuenta en su programación con películas, obras escénicas, un espacio de industria propiamente dicho y proyectos expandidos en torno a la diversidad sexual, de identidad y género.

Zinegoak 2024, una vez más, ha escuchado algunas de las reflexiones principales presentes en la sociedad y las ha trasladado a las salas a través de diferentes propuestas culturales, reivindicando la libertad y la legitimidad de decidir quiénes somos y cómo queremos vivir. Todo ello desde una mirada abierta a la diversidad sexual, a las distintas orientaciones, a la construcción de identidad de género o a cualquier otro elemento ligado a la sexualidad y poniendo el foco en el poder de imaginar y construir nuestros presentes y futuros, y en la necesidad de hacerlo no sólo de manera individual, sino colectiva. Esos son los espacios que hemos querido difundir y construir y a los que hemos decidido llamar utopías queer o *queertopías*.

La 21 edición de Zinegoak arrancó oficialmente el día 24 de junio con la inauguración que tuvo lugar en el Teatro Arriaga y terminó el lunes 1 de julio con la entrega de premios y clausura del festival. El fin de semana previo al arranque oficial se celebró el 3,2,1... Zinegoak! Y a partir del día 1 de julio y hasta el 3, se pudo disfrutar de manera virtual de parte de la sección oficial y de algunas de las secciones paralelas en el canal de Zinegoak dentro de la plataforma FILMIN. Además, se ha ampliado el acuerdo de colaboración con EITB y se ha activado el canal ZINEGOAK en la Plataforma PRIMERAN, con el objetivo de hacer llegar películas de temática LGTBIQ+ en euskera al máximo de personas.



OHOREZKO SARIA PREMIO, HONORÍFICO CLARISA NAVAS

BABESLEA PATROCINADO POR SPONSORED BY



Zinegoak 2024 ohorezko saria Clarisa Navas argentinar zinemagileak jaso du, DAMA ikus-entzunezko eta zinema-lanen egile-eskubideak kudeatu eta banatzen dituen erakundeak babestua.

Clarisa Navas zuzendari, gidoilari, ekoizle, irakasle eta idazlea da, eta klase eta genero begiradadun zinema garatzen du, sormen kolektiboko prozesuak sustatzen dituen zinema, eraldaketarako motor eta palanka gisa. Bere ingurunearekin konprometitutako sortzailea, komunitate indigenei, landa-herriei, giza harremani, aniztasunari, LGTBIQ+ identitateei eta ohiko ereduetatik at antolatzen diren bizipenei eta gizarte-inguruneei buruz hitz egiten duten fikziozko istorioak pantailara eramateagatik bereizten dena.

Clarisa Navas zinema latinoamerikar berriaren ahots oparoenetako bat da, eta ausardiaz erabaki du beste narratiba batzuk eta beste erreferente batzuk sortzea, elkarrizketa eta gogoeta berriak sortzeko beharrari helduz, bai gaiei dagokienez, bai zinema egiteko moduari dagokionez. Zinema egiteko duen modua beti aitortu behar da, baina are gehiago Argentinan gaur egun dugun testuinguruan, gure eskubideak eta bizitzak arriskuan baitaude. Horregatik guztiagatik, bere lan artistikoa eskertu nahi izan dugu eta gure sari nagusiarekin duen konpromiso soziala aitortu.

El premio honorífico Zinegoak 2024, patrocinado por DAMA, entidad de gestión y reparto de los derechos de autor de obras audiovisuales y cinematográficas, ha sido para la cineasta argentina Clarisa Navas.

Clarisa Navas es una directora, guionista, productora, docente y escritora, que desarrolla un cine con mirada de clase y género, un cine que potencia los procesos de creación colectiva como motor y palanca de transformación. Una creadora comprometida con su entorno, que se caracteriza por trasladar a la pantalla historias de ficción que hablan sobre comunidades indígenas, poblaciones rurales, relaciones humanas, diversidad, identidades LGTBIQ+, y sobre vivencias y entornos sociales que se organizan al margen de los patrones convencionales.

Clarisa Navas es una de las voces más prometedoras del cine latinoamericano reciente que ha decidido con valentía crear otras narrativas y otros referentes abordando la necesidad de generar nuevos diálogos y nuevas reflexiones, tanto en los temas como en la propia forma de hacer cine. Su forma de hacer cine merece ser reconocida siempre, pero más aún en un contexto como el actual en Argentina, donde peligran nuestros derechos y nuestras vidas. Por todo ello, hemos querido agradecer su trabajo artístico y reconocer su compromiso social con nuestro máximo galardón.



3,2,1...ZINEGOAK!




3, 2, 1... Zinegoak! ekitaldiarekin eman genion hasiera 2024ko edizioari jaialdia ofizialki hasi aurreko asteburuan, ekainaren 21etik 23ra, eta hainbat jarduera kultural izan ziren bertan:

- » Guggenheim Bilbao Museoa: Laura Poitras zinemagilearen *All the Beauty and the Bloodshed* pelikularen proiektzioa.
- » Sarean Kultur Elkartea: Danele Sarriguarte idazlearen eta Miren Narbaiza artistaren *Popperra, afterra, utopia* proiektu literario musikatuaren aurkezpena. Performance horretan, hitzaren eta musikaren bidez, orainarekin ez etsitzearen garrantzia eta dantza beste etorkizun batzuk eraikitzeke modu bat izan daitekeela erakusten dute.
- » Bilborock: Dantzerti, Euskadiko Goi Mailako Arte Dramatiko eta Dantza Eskolarekin elkarlanean egindako *Lopek zioenez: Sin mí, sin vos y sin Dios* obraren estreinaldia. Matxalen de Pedrok zuzendutako eta Dantzertiko ikasleek antzetzutako lana, generoari eta sexu-aniztasunari buruzko sorkuntza kolektiboko gogoeta performatibo bat da.
- » Bira Kultur Gunea: *BIZI* proiektuaren bigarren zatia aurkezpena. Bertan, bisexualitateari eta euskal komunitateari buruzko transmedia erreportaje bat sortu da. Aurkezpenaz gain, bertso-saioa, Albina Stardusten emanaldia eta DJ saioa izan zen.
- » Bilborock: DAMAK babestutako Zinegoak 2024 ohorezko saridun Clarisa Navasen hitzaldia. Saioan Irantzu Varela kazetari feminista izan zuen lagun. Ondoren, bere hiru obra proiektatu ziren: "Hoy partidos a las Tres", "Enviado y falsear" eta "No es un juego". Proiektzioaren ostean, zuzendariarekin eta publikoarekin solasaldia izan zen.

La edición de 2024 comenzó con 3,2,1... Zinegoak! que se celebró el fin de semana previo al arranque oficial del festival, del viernes 21 al domingo 23 de junio y donde se desarrollaron diferentes actividades culturales:

- » Museo Guggenheim Bilbao: proyección de la película *All the Beauty and the Bloodshed (La belleza y el dolor)* de la cineasta Laura Poitras.
- » Sarean Kultur Elkartea: presentación del proyecto literario-musical *Popperra, afterra, utopía* de la escritora Danele Sarriguarte y la artista Miren Narbaiza. Una performance donde a través de la palabra y música demuestran la importancia de no resignarse al presente y que el baile puede ser una forma de construir otros futuros.
- » Bilborock: estreno de la obra *Lopek zioenez: Sin mí, sin vos y sin Dios* realizada en colaboración con Dantzerti, Escuela superior de arte dramático y danza de Euskadi. La obra dirigida por Matxalen de Pedro e interpretada por alumnado de Dantzerti, es una reflexión performativa de creación colectiva sobre el género y la diversidad sexual.
- » Bira Kultur gunea: Presentación de la segunda parte del proyecto *BIZI*, donde se ha creado un reportaje transmedia sobre bisexualidad y comunidad vasca. Además de la presentación, se realizó un bertso-saio, la actuación de Albina Stardust y una sesión de DJ.
- » Bilborock: Ponencia de la premio honorífico Zinegoak 2024 Clarisa Navas, patrocinada por DAMA. En la sesión estuvo acompañada de la periodista feminista Irantzu Varela. Posteriormente se proyectaron tres de sus obras: "Hoy partidos a las Tres", "Enviado y falsear" y "No es un juego", y tras la proyección hubo un coloquio con la directora y el público.




EGITARAUA PROGRAMACIÓN FIK DOK KRAK

Zinegoak 2024k aldarrikapen eta zilegitasun guneetan jarri du arreta, non askotariko errealitateak bizi diren, heteronormatibitate, patriarkatutik, kolonialismotik, kapazitismotik eta planeta osoan zehar erabiltzen diren zapalkuntza sistema anitzetatik ihes egiteko borrokan. Horiei guztiei queertopiak deitu diegu eta Zinegoaken programazio osoan islatu dira.

Zinegoak film luzeetako programazio ofizialeko hiru kategoriei, FIK, DOK, KRAK, eutsi die. Bertan, Brasil, Mexiko, Nigeria, Txina, Turkia, Grezia eta Argentinako 15 film lehiatu dira, besteak beste. Horien artean, Brasilgo zonalde txirotuenetako batean queer voleibol-talde batek izandako bizipenak (*Levante*, 2023), 80ko hamarkadan Lesbos uhartean eratu eta oraindik jarraitzen duen komunitate lesbikoaren historia (*Lesvia*, 2023), Suitzan asilo politikoko prozesuetan gertatzen diren galdeketak (*Die Anhörung - The Hearing*, 2023), sexu-esnatzea eta polimaitasuna (*Vera y el placer de los otros*, 2023) edo LGTBfobiaren salaketa eta haren aurka borrokatzeko ahalduntzea (*Mavi Kimlik*, 2022; *Crossing*, 2024).

Zinegoak 2024 ha puesto el foco en espacios de reivindicación y legitimación donde conviven realidades diversas que luchan por escapar de la heteronormatividad, del patriarcado, del colonialismo, del capacitismo y de los múltiples sistemas de opresión que operan a lo largo del planeta y a los que hemos llamado utopías queer o queertopías. Esto se ha reflejado en toda la programación de Zinegoak.

Zinegoak ha mantenido sus tres categorías de la programación oficial de largometraje FIK, DOK y KRAK donde han competido 15 películas provenientes de diferentes países como Brasil, México, Nigeria, China, Turquía, Grecia o Argentina, entre otros. Entre ellas, las vivencias de un equipo de voleibol queer en una de las zonas más deprimidas de Brasil (*Levante*, 2023), la historia de la comunidad lesbica que se forjó en la isla de Lesbos en los años 80 y que aún continúa (*Lesvia*, 2023), los interrogatorios que tienen lugar en los procesos de asilo político en Suiza (*Die Anhörung - The Hearing*, 2023), el despertar sexual y el poliamor (*Vera y el placer de los otros*, 2023) o la denuncia de la LGTBfobia y el empoderamiento para luchar contra ella (*Mavi Kimlik*, 2022; *Crossing*, 2024).




EGITARAU PROGRAMACIÓN BEGIRADAK

Lehiatzen diren film laburren sail ofizialak 5 ziklo izan ditu, besteak beste, *Haurtzaroari eta Nerabezaroari* buruzko ohiko zikloak, (LGTBIQ+ adingabeek bizi dituzten errealitate ezberdinei buruzkoak), eta *Emakume Zuzendariak* zikloa, (emakumeek zuzendutako hainbat lan jasotzen dituztenak, LGTBIQ+ bizipenei buruzkoak). Aurreko edizioan izandako arrakasta dela eta, bigarren urtez errepikatu da *TBIQ+* zikloa, eta LGTBIQ+ kolektiboaren barruan gutxien ikusarazitako errealitateen istorioen lagin bat eskaini du. Eta beste bi ziklo berri sortu dira: *Sexilioak* zikloa, diskriminazio edo indarkeria LGTBIkobikoagatik jaioterria edo ingurune hurbilena nahitaez utzi behar izan duten pertsonen bizipenak biltzen dituena. Eta *Queertopiak* zikloa, non harremanak izateko, gure nortasunak bizitzeko edo gure sexualitatea bizitzeko hainbat modu utopiko biltzen diren. Inguruan traba ugari izan arren, badira errealitate bihurtzen ari diren queer errealitate ezberdinak, eta eurei ikusgarritasuna ematea izan da helburua.

Lehiaketaz kanpo, *Erroak*, *Euskal Panorama* zikloa apustu sendoa da, aniztasuna jorratzen duten eta Euskadin egin diren hainbat film labur biltzen dituena. Hori jaialdiaren ziklo finkoetako bat da, tokiko ekoizpenarekiko konpromisoa erakusten baitu. Helburua da sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko filmeen sorkuntza, ekoizpena eta banaketa sustatzea eta bultzatzea, eta LGTBIQ+ edukia duten euskal ekoizpenei erakusleho bat irekitzea.

La sección oficial de cortometrajes a competición ha contado con 5 ciclos, entre ellos los ya habituales sobre *Infancia y Adolescencia*, realidades a las que las personas menores de edad LGTBIQ+ tienen que hacer frente, y el ciclo *Mujeres Directoras*, donde se recogen obras dirigidas por mujeres que tratan realidades LGTBIQ+. Debido al éxito que tuvo en la edición anterior, se ha repetido por segundo año el ciclo *TBIQ+*, que ha ofrecido una muestra de historias de las realidades menos visibilizadas dentro del colectivo LGTBIQ+. Y se han creado para la ocasión otros dos ciclos nuevos: el ciclo *Sexilios*, que recoge las vivencias de personas que han tenido que abandonar de manera forzosa su localidad natal o su entorno más cercano por cuestiones de discriminación o violencia LGTBIQ+. Y el ciclo *Queertopias*, donde se recogen diferentes maneras utópicas de relacionarnos, de vivir nuestras identidades o nuestra sexualidad. Islas queer en la normatividad imperante que van convirtiéndose en realidades tangibles en espacios y entornos sociales diversos.

Fuera de competición se mantiene como una apuesta firme el ciclo *Erroak*, *Panorama vasco*, que recoge diferentes cortometrajes que tratan la diversidad y han sido realizados en Euskadi. Este es uno de los ciclos hijos del festival ya que supone un compromiso con la producción local. Su objetivo es apoyar y estimular la creación, producción y distribución de películas en torno a la diversidad sexual y de género, y abrir una ventana de exhibición de producciones vascas con contenido LGTBIQ+.



EMANALDI BEREZIAK PROYECCIONES ESPECIALES

Hainbat proiektu berezi izan ditugu:


- » Clarisa Navas Zinegoak 2024 Ohorezko Saria zikloa, DAMA babestua, BilbaoArten eta Bilborocken.
- » *Te estoy amando locamente* filmaren proiektzioa, Alejandro Marinek zuzendua, FAS Zineklubarekin elkarlanean antolatutako saio batean.
- » Eszter Kattalin artista eta zuzendariak *Queer (Un)Belongins* pelikula estreinatu du. Bertan Euskal Herrian bizi diren eta LGTBQ+ moduan identifikatzen diren zazpi artista elkarriketatu ditu, migrazio istorio ezberdinak bizi izan dituztenak.
- » Sebastián Silvak zuzendutako *Rotting in the Sun* pelikula mexikarraren proiektzioa. Bertan, influencer eta zine-zuzendari baten arteko topaketa kontatzen da.

Emanaldi berezien ondoren, ikusleek aukera izan dute pelikuletako lantaldeekin beren-beregi hartu-emanak izateko: xehetasunak ezagutu, sormen-prozesua aztertu, euren bizipen pertsonalak entzun eta abar.

Hemos contado con diferentes proyecciones especiales:

- » Ciclo Premio Honorífico Clarisa Navas Zinegoak 2024 patrocinado por DAMA, que ha tenido lugar en BilbaoArte y Bilborock.
- » Proyección de la película *Te estoy amando locamente*, dirigida por Alejandro Marin, en una sesión organizada en colaboración con el Cineclub FAS.
- » La directora y artista Eszter Kattalin ha estrenado la película *Queer (Un)Belongins* formada a partir de entrevistas a siete artistxs que viven en el País Vasco, que se identifican como LGBTQ+ y que están marcads por diferentes historias de migración.
- » Proyección de la película mexicana *Rotting in the Sun* dirigida por Sebastián Silva, y que narra el encuentro entre un influencer y un director de cine.

Tras las proyecciones especiales el público ha podido profundizar con los equipos de las películas acerca de los cruces que se producen en la obra, el proceso creativo, quienes la interpretan y sus vivencias personales.



ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCENICAS

» Doña Perfectita konpainiaren azken antzezlanaren aurkezpena, *Erreka Mari* izenekoa, Javier Larak zuzendua eta Egoitz Sánchezek antzeztua. Queer autobiografía hau Egoitz Sánchezen bizitza berrikusten duten memoria, erreferentzia eta oroitzapenen gurutzaketa bat da, Javier Lararekin batera familia-bideo batzuk ikustearen ondorioz, eta horrek estereotipo mediatikoei, bullying-ari eta haurtzaroaren hipersexualizazioari buruz hausnartzera eramaten ditu.

» *Lopezioenez: Sin mí, sin vos y sin Dios* antzezlanaren estreinaldia, Dantzerti, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolarekin lankidetzan ekoiztua. Iazko edizioan hasitako lankidetzari eutsiko diogu, honen arrakasta dela eta. Matxalen De Pedrok zuzendu eta ikasleek interpretatutako lan hau generoari eta sexu-aniztasunari buruzko sorkuntza kolektiboko hausnarketa performatibo bat da. Fikziozko pertsonaia klasikoen hitzak eta queer teoria garaikideen diskurtsoak erabiliz, taldeak generoari eta sexu-desioari buruzko galdera propioen erantzunak bilatzen ditu. Antzerkia espazio segurua da nortasun eta desio desberdinak probatzeko eta fikzioaren babespean jendaurrean aurkezteko.

» Presentación de la última pieza teatral de la compañía Doña Perfectita titulada *Erreka Mari* dirigida por Javier Lara e interpretada por Egoitz Sánchez. Esta autobiografía queer es un cruce de memorias, referencias y recuerdos que revisan la vida de Egoitz Sánchez a raíz del visionado de unos vídeos familiares junto a Javier Lara, lo que les lleva a reflexionar sobre los estereotipos mediáticos, el bullying, y la hipersexualización de la infancia.

» Estreno de la obra teatral *Lopezioenez: Sin mí, sin vos y sin Dios*, producida en colaboración con Dantzerti, Escuela superior de arte dramático y danza de Euskadi, con quien se mantiene la colaboración iniciada en la pasada edición debido al éxito de esta. Esta obra dirigida por Matxalen De Pedro e interpretada por el alumnado es una reflexión performativa de creación colectiva sobre el género y la diversidad sexual. Empleando palabras de personajes de ficción clásicos y discursos de teorías queer contemporáneas, el equipo busca respuestas a preguntas propias sobre el género y el deseo sexual. El teatro es un espacio seguro para probar identidades y deseos diversos y presentarlos ante público bajo el cobijo de la ficción.






EZTABAIDA eta HAUSNARKETA ENCUENTROS DEBATE y REFLEXIÓN BILGUNE

Gune hau topagune, eztabaida eta hausnarketarako espazio gisa finkatu da Zinegoaken barruan, eta bertan honako hauek aurkeztu dira:

- » Danele Sarriugartek eta Miren Narbaizak diseinatu eta interpretatutako *Popperra, afterra, utopia* performancearen aurkezpena. Bertan, musika eta hitza oinarri hartuta, gaurkotasunari eta beste etorkizun posible batzuei buruzko gogoeta egiten da.
- » June Fernández kazetariak gidatutako bisexualitateari eta euskal komunitateari buruzko transmedia *BIZI* dokumental-proiektuaren aurkezpena. Egunean zehar bertsolaritza saio bat aurkeztu zen Maddi Ane Txoperena eta Janire Arrizabalaga bertsolariekin, Albina Stardust drag artistaren performance bat eta ondoren musika saio bat Dj Eromenaren eskutik.
- » Plazeratu.klub taldearen eta bere proiektuaren aurkezpena. Kolektibo honen ustez, jaiia LGTBQA+ kolektiboaren plazera aldarrikatu eta ikusarazteko gune kritikoa da, tokiko jai-kultura nagusiaren ikuspegi tradizionalak gainditu nahian, queer disidentzietatik abiatuta posible diren beste iruditeria eta harreman-kode batzuk proposatuz, eta, horrekin batera, jaiia bizitzeko beste modu batzuk proposatuz, borroka kolektiboak loratzeko eta ospatzeko gune seguruago gisa.

Esta área se consolida como un espacio de encuentro, debate y reflexión dentro de Zinegoak y en ella se han presentado:

- » La presentación de la performance *Popperra, afterra, utopia* diseñada e interpretada por Danele Sarriugarte y Miren Narbaiza, que reflexiona sobre la actualidad y otros futuros posibles a partir de la música y la palabra.
- » Presentación del proyecto documental transmedia *BIZI* sobre bisexualidad y comunidad vasca liderado por la periodista June Fernández. Durante la jornada se presentó una sesión de bertsolarismo con las bertsolaris Maddi Ane Txoperena y Janire Arrizabalaga; una performance de la artista drag Albina Stardust, y posteriormente una sesión musical de la mano de Dj Eromena.
- » Presentación del colectivo *Plazeratu.klub* y de su proyecto. Este colectivo entiende la fiesta como un espacio crítico donde reivindicar y visibilizar el placer del colectivo LGTBQA+ buscando superar los enfoques tradicionales de la cultura festiva local predominante, proponiendo otros imaginarios y códigos de interrelación posibles a partir de las disidencias queer, y con ello, otras formas de habitar la fiesta como un espacio más seguro donde hacer florecer luchas colectivas y celebrarnos.



EKITALDIAK GALAS

HASIERA EKITALDIA GALA INAUGURAL

Ekainaren 24an, 19:30ean, Arriaga Antzokian, Zinegoak 2024ren inaugurazio-ekitaldia egin zen, Nerea Arriola aktoreak eta Divina Comedia drag artistak aurkeztuta. Gainera, Eddi Circa kantautorearen musika emanaldiaz gozatu ahal izan zen.

Galan, Clarisa Navas argentinar zinemagileak Zinegoak 2024 ohorezko saria jaso zuen, DAMAK babestua. Ekitaldia María Gisèle Royo eta Julia de Castro zuzendarien *On the go* Sail Ofizialeko film luzearen proiektioarekin amaitu zen. Road movie ausarta, queer eta feminista, harreman sentimentalak normalizatetik kanpo dauden beste ikuspegi batzuetatik pentsatzera gonbidatzen gaituena.

AMAIERA EKITALDIA GALA de CLAUSURA

Uztailaren 1ean sari banaketa eta itxiera gala egin ziren Bilborocken. Unai Izquierdo aktorea eta Irantzu Varela kazetari feminista izan ziren aurkezleak, eta bertan epaimahai ezberdinek aurtengo saridunak nortzuk izan ziren iragarri zuten. Galari amaiera emateko, EITBk babestutako eta 4.000 euroko ZG Sari Nagusia irabazi zuen filma proiektatu zen.




Inaugurazio ekitaldia eta itxiera ekitaldia streaming bidez jarraitu ahal izan ziren EITBri esker.

El día 24 de junio a las 19:30 en el Teatro Arriaga tuvo lugar la gala de inauguración de Zinegoak 2024 que fue presentada por las actriz Nerea Arriola y la artista drag Divina Comedia. Además se pudo disfrutar de la actuación musical de la cantautora Eddi Circa.

Durante la gala, la cineasta argentina Clarisa Navas recibió el premio honorífico Zinegoak 2024 patrocinado por DAMA. La gala concluyó con la proyección del largometraje de la Sección Oficial *On the go* de las directoras María Gisèle Royo y Julia de Castro que fue presentado por las mismas. Una road movie atrevida, queer y feminista que nos invita a pensar las relaciones sentimentales desde otras perspectivas que escapan de la normatividad.

El 1 de julio se realizó la entrega de premios y gala de clausura en Bilborock. En ella se dio paso a los distintos jurados del festival que dieron a conocer el palmarés en un acto presentado por el actor Unai Izquierdo y la periodista feminista Irantzu Varela. La gala concluyó con la proyección de la película ganadora del Gran Premio ZG, patrocinado por EITB y dotado con 4.000€.

Tanto la gala de inauguración como la gala de clausura pudieron seguirse vía streaming gracias a EITB.



ZG PRO Zinegoak zinemagintzara bideratzen duen espazioa da, zehazki, LGTBIQ+ ikus-entzunezko produkzioarekin lotutako berrikuntza, ikerketa eta prestakuntzara. Arlo hori funtsezkoa da sexu-, identitate- eta genero-aniztasunarekin lotutako zinemaren garapenean lan egiten duten eragileak eta espazioak ikusarazteko, eta eragile horiek prestakuntza-gune espezializatuetara hurbiltzen laguntzeko.

Joera hori babesteko, LGTBIQ+ Hego Europa Jaialdien Sarearen laguntza izan dugu berriz ere, bertan baitaude Queer Lisboa eta Queer Porto jaialdiak, Mix Milano, Parisko Chéries-chéris eta Zinegoak. Eta berrikuntza gisa, aurtengo edizioan Estatuko LGTBIQ+ Laborategi Sarea inauguratu dugu, Fire!! Lab, Bartzelonako Mostras Fire!!-ekoa; Queercinelab, Triangulo Fundazioaren jaialdiak biltzen dituen: Lesgaicinemad, Cinhomo, Andalesgai, Fancinequeer eta Zinegoakeko ZG PRO espazioa, aurten, Donostiako Zinemaldiarekin (SSIFF) batera, ZG PRO Industry SSIFF Sariaren bidez lehen lankidetzatza bat ezartzen duena.

ZG PRO bi jardunalditan garatu da. Lehenengoan, Masterclass Jardunaldiak egin dira, eta Sonia Fernández Pan, Tao Luna Acosta, Fefa Vila Núñez, Danele Sarriugarte eta Anais Córdoba Páez izan dira parte-hartzaileak.

Bigarren egunean ZG PRO LAB jardunaldia antolatu zen. Eguna hasteko, ZiNaizen aurkeztu zen, Naizen eta Zinegoak-ek antolatutako ikus-entzunezko edukiak sortzeko lehiaketa, trans haurtzaroen errealitateak ikusaraziko dituzten ikus-entzunezko edukien sorkuntza bultzatzea helburu duena. Ondoren, hautatutako proiektuak pitching formatuan aurkeztu zitzaizkion epaimahaiari, sektoreko hainbat profesionalak eta Hego Europako LGTBIQ+ Jaialdien Sareko ordezkari banak osatuta.

Halaber, DAMAK, ikus-entzunezkoen egileen eskubideak biltzen, kudeatzen eta banatzen espezializatutako kudeaketa erakunde espainiarra, eta Zinegoak 2024 Ohorezko Sariaren babesleak, eskubideen kudeaketari eta ekoizpen zinematografikoari buruzko master class bat eman zuen.

ZG PRO es el espacio que Zinegoak destina a la industria cinematográfica, en concreto a la innovación, la investigación y la formación en relación con la producción audiovisual LGTBIQ+. Esta área es esencial para visibilizar agentes y espacios que trabajan en el desarrollo del cine relacionado con la diversidad sexual, de identidad y género, y para propiciar el acercamiento de estos agentes a los espacios de formación especializados

Para apoyar esta tendencia, hemos vuelto a contar con la colaboración de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur, donde se encuentran los festivales Queer Lisboa y Queer Porto, Mix Milano, Chéries-chéris de París y Zinegoak. Y como novedad, esta edición hemos inaugurado La Red Estatal de Laboratorios LGTBIQ+ formada por Fire!! Lab, de la Mostras Fire!! de Barcelona; el Queercinelab, que engloba los festivales de Fundación Triángulo: Lesgaicinemad, Cinhomo, Andalesgai, Fancinequeer y el espacio ZG PRO de Zinegoak que, junto con el Festival Internacional de Cine de San Sebastián (SSIFF), este año establece una primera colaboración a través del Premio ZG PRO Industry SSIFF.

ZG PRO se ha desarrollado en dos jornadas, la primera donde han tenido lugar las Jornadas de Masterclasses en las que han participado Sonia Fernández Pan, Tao Luna Acosta, Fefa Vila Núñez, Danele Sarriugarte y Anais Córdoba Páez.

Y la jornada ZG PRO LAB, que comenzó con la presentación de ZiNaizen, un concurso de creación de contenidos audiovisuales organizado por Naizen y Zinegoak, cuyo objetivo es impulsar la creación de contenidos audiovisuales que visibilicen realidades de las infancias trans. Después se presentaron en formato pitching los proyectos seleccionados al Jurado, conformado por diferentes profesionales del sector y un representante de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur.

Asimismo, DAMA, entidad española de gestión especializada en la recaudación, gestión y reparto de derechos de autores del medio audiovisual, y patrocinadora del Premio honorífico Zinegoak 2024, impartió una master class sobre la relación de la gestión de derechos y la producción cinematográfica.



ZINEGOAK

Jaialditik independentea den programa hau Zinegoak Elkarteak martxan jarri zuen 2022an. Horrekin, publiko berrien sentsibilizazioan eta garapenean jartzen da arreta, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeei zuzenduta baitago. Urtean zehar garatzen da, kulturara eta LGTBQ+ ikus-entzunezko produkziara sartzeko espazioak irekitzeko asmoarekin, sexu-aniztasunarekin, identitatearekin eta generoarekin zerikusia duten gai guztiak hobeto ulertzen laguntzeko, ikus-entzunezko hizkuntzaren berezko elementuen bitartez. EAEko hainbat herritan egiten da urtean zehar, eta hirugarren edizioa du aurtengoa.

Es un programa independiente al festival desarrollado por la Asociación Zinegoak que se puso en marcha en 2022. Con él se pone el foco en la sensibilización y el desarrollo de nuevos públicos ya que está dirigido a centros educativos de educación secundaria, bachiller y formación profesional. Se desarrolla a lo largo del año con la intención de abrir espacios de acceso a la cultura y la producción audiovisual LGTBQ+, que ayuden a poder tener una mayor comprensión de todas aquellas cuestiones que tengan que ver con la diversidad sexual, de identidad y género, a través de los elementos propios del lenguaje audiovisual. Se lleva a cabo por diferentes localidades de la CAV a lo largo del año y va por su tercera edición



ZG HEDAPENA

Zinegoak elkarteak garatutako programa independentea da, eta arreta jartzen du ikusleen garapenean, sensibilizazioan, banaketan eta LGTBIQ+ programazioaren erakusketan Euskadiko eta Nafarroako udalerrri ezberdinetan. Programa hau 2005ean sortu zen, sexu-, identitate- eta genero-antiztasunari lotutako kultura-ekoizpena zabaltzeko eta zuzentzeko tresna gisa. Izan ere, herri batzuetan zaila da oraindik LGTBIQ+ edukia duten lanak iristea, bai eta LGTBIQ+ komunitatearen eta gizartearen arteko elkargune diren sensibilizazio-jardueretara edo bestelako jardueretara ere. Maiatza, ekaina eta uztaila bitartean egiten da. Aurten 70 proiektu baino gehiago egin dira 54 herritan.

Es un programa independiente desarrollado por la Asociación Zinegoak que pone el foco en el desarrollo de audiencias, sensibilización, distribución y exhibición de programación LGTBIQ+ por diferentes localidades de Euskadi y Navarra. Este programa nació en 2005 como herramienta para ampliar el alcance y dirigir producción cultural en relación a la diversidad sexual, de identidad y género, a aquellos núcleos de población donde todavía es más difícil la llegada de las obras de contenido LGTBIQ+, así como las actividades de sensibilización u otras que supongan un punto de encuentro entre la comunidad LGTBIQ+ y la sociedad. Se desarrolla entre mayo, junio y julio. Este año 2024 han sido algo más de 70 proyecciones en 54 poblaciones.



Araba

1. Amurrio
2. Aramaio
3. Artziniega
4. Berantevilla
5. Laudio
6. Urkabustaitz
7. Zigoiti

Bizkaia

8. Abadiño
9. Bakio
10. Balmaseda
11. Barakaldo
12. Basauri
13. Bermeo
14. Durango
15. Galdakao
16. Getxo
17. Igorre
18. Leioa
19. Lekeitio
20. Lezama

21. Mallabia
22. Markina - Xemein
23. Mungia
24. Ondarroa
25. Plentzia
26. Sestao
27. Sopela
28. Zalla

Gipuzkoa

29. Aduna
30. Anoeta
31. Arrasate
32. Astigarraga
33. Azkoitia
34. Azpeitia
35. Bergara
36. Deba
37. Donostia
38. Eibar
39. Hernani
40. Hondarribia

41. Lazkao
42. Legazpi
43. Legorreta
44. Oiartzun
45. Oñati
46. Ordizia
47. Orio
48. Tolosa
49. Urretxu
50. Usurbil

Nafarroa

51. Baztan
52. Bidaurreta
53. Oltza Zendea / Cendea de Olza
54. Tafalla

Zg Hedapena

Bilboko LGTBIQ+ 21. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdia

21º Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas LGTBIQ+ de Bilbao

21st Bilbao International LGTBIQ+ Film and Performing Arts Festival

Antolatzailea: Organiza

ASOCIACIÓN ZINGOAK ELKARTEA

Bilbokoak Patrocinatzailea

Bizkaia Foru Erkanda diputazioa

berdindu!

eitb

PRIMERAI

ZINEGOAK ZENBAKITAN EN NÚMEROS

65 aurrez aurreko proiektzio
65 proyecciones presenciales

18 proiektzio online
18 proyecciones online

9 jarduera eszeniko edota kultur aurkezpen
9 actividades escénicas y/o presentaciones culturales

5 masterclass
5 masterclasses

39 film luze
39 largometrajes

42 film labur (Begiradak + Erroak + Zinegogoak)
42 cortometrajes (Begiradak + Erroak + Zinegogoak)

54 proiektzio ZG Hedapenean eta 60 proiektzio baino gehiago
50 localidades y más de 60 proyecciones

%52 emakumeek zuzendutako lanak
52% de obras y actividades lideradas o dirigidas por mujeres

ARRAKASTA eta IRISMENA ÉXITO y ALCANCE

**IKUS-ENTZULEEN
EBOLUZIOA eta BISITAK JAIALDIAN**
EVOLUCIÓN AUDIENCIAS
y VISITAS al FESTIVAL

IKUS-ENTZULEAK
ASISTENCIA 2024:
6.062

AURREZ AURREKO IKUS-ENTZULEAK:
ASISTENCIA PRESENCIAL:
5.420

Zinegoak + Zg Hedapena + ZineGogoak:
3.000 + 1.620 Estimazioa Estimación
+800

AIPAMENAK INTERNETEN MENCIONES EN INTERNET

Web:
11.670 Erabiltzaile usuariox
29.845 saio sesiones

Bisitak 2023
Visitas 2023:
11.500

RRSS:
TWITTER
8.960.576 interakzio interacciones
FACEBOOK
6.037 Erabiltzaile usuariox (+130 desde 2021tik)
INSTAGRAM
5.060 Erabiltzaile usuariox
(+ 945 desde 2023tik)

OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO en los MEDIOS

Zinegoak 2024 programak 400 agerraldi baino gehiago izan ditu hainbat komunikabidetan: telebista, irratia, egunkari, informazio-agentzia, hileroko agenda, aldizkari espezializatu, blog...

Filminen duen presentzia eta komunikazio-eremu nagusitik haratago duen irismena kontuan hartuta, komunikazioaren indartzeari eutsi dio komunikazio lerro espezializatuak garatuz.

Telebistan, nabarmentzekoa da ETBko entretenimendu eta albistegietako hainbat saiotan izan dugun parte-hartzea. Gainera, jaialdiaren irekiera eta itxiera ekitaldiak zuzenean jarraitzeko aukera izan da.

Halaber, PRIMERAN plataforman sortu dugun ZINEGOAK kateak LGTBIQ+ gaiak lantzen dituzten pelikulak eskaini ditu, jaialdian parte hartu duten hainbat lan eskainiz, eta baita ere bestelako LGTBIQ+ edukiak.

Zinegoak 2024 ha tenido más de 400 apariciones en distintos medios de comunicación: televisiones, radios, periódicos, agencias de información, agendas mensuales, revistas especializadas, blogs...

Dada la presencia en Filmin y su alcance más allá del ámbito comunicativo principal ha mantenido el refuerzo de la comunicación desarrollando líneas de comunicación especializadas.

En TV destaca la presencia en diversos espacios de entretenimiento e informativos de ETB. Además de la posibilidad de seguir en directo las ceremonias de apertura y clausura del festival.

De la misma manera, el canal ZINEGOAK en la plataforma PRIMERAN ha ofrecido películas de temática LGTBIQ+ que han formado parte del festival a lo largo de sus distintas ediciones, además de otros contenidos LGTBIQ+.



OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO en los MEDIOS

Hedabide idatzi eta digitaletan **90 argitalpen** baino gehiago
Más de **90 publicaciones** en medios escritos y digitales:

PRENTSAN ARGITARATUTAKOAK DESTACADOS EN PRENSA

| | |
|-----------------|------------------|
| Berria | Uriola |
| El Correo | Zuzeu |
| Diario Vasco | AUX Magazine |
| Gara | Noiz |
| Deia | Kultur Sharea |
| El diario.es | Bizkaia! |
| Europa Press | Kulturklik |
| EFE | Nontzeberri |
| Zinea.eus | Periódico Bilbao |
| Argia | Kazeta |
| La Ría del Ocio | Pikara Magazine |
| Gaztezulo | Mugalari |

AGERPENAK TELEBISTAN DESTACADOS EN TV

EITB . Informativos
ETB 1- Egun on Euskadi
ETB 1- Biba zuek!
ETB 2- Quédate
RTVE - Telenorte Informativos
Hamaika TB - Gurean gaur
Hamaika TB - Informativos
Tele 7 - Informativos
Telebilbao - Informativos

AGERPENAK IRRATIA DESTACADOS EN RADIO

Radio Euskadi
Radio Bilbao - Cadena Ser
Euskadi Irratia
Gaztea
Bizkaia Irratia
Bilbo Hiria
Onda Cero
RNE
Radio Nervión
Naiz Irratia

ELKARRIZKETAK ETA LANKIDETZAK ENTREVISTAS Y COLABORACIONES

30 elkarrizketa baino gehiago hedabide idatzi, digital, irradi eta telebistetan.

- » Hasiera eta Amaiera ekitaldien zuzeneko emisioa EITB.EUS webgunean.
- » Jarraipen zabala jaialdiak antolatutako prentsaurrekoetan.
- » EITBko hainbat saiotan zuzeneko elkarrizketak: "Quédate", "Biba Zuek!", "Egun on Euskadi".
- » Deia egunkariko Ortzadar gehigarrian azala.
- » Elkarrizketak telebistan: RTVE (Telenorte), Hamaika Telebista (Gurean gaur), Telebilbao (albistegiak).
- » Zuzeneko elkarrizketak hainbat irratan: Radio Euskadi, Naiz Irratia, Euskadi Irratia, Bilbo Hiria, Radio Nervión, Bizkaia Irratia...
- » Hainbat hedabidetan elkarrizketak jaialdiak gonbidatutako artista eta gonbidatuei: El Correo, Deia, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Informativos de EITB...

Más de 30 entrevistas concedidas a medios de prensa escrita, radios y televisiones.

- » Emisión en directo en EITB.EUS de las Galas de Inauguración y Clausura.
- » Amplia cobertura en las ruedas de prensa organizadas por el festival.
- » Entrevistas en directo en varios programas de EITB: "Quédate", "Biba Zuek!", "Egun on Euskadi".
- » Portada del suplemento Ortzadar del periódico Deia.
- » Entrevistas en TV: RTVE (Telenorte), Hamaika Telebista (Gurean gaur), Telebilbao (informativos).
- » Entrevistas en directo en radios como Radio Euskadi, Naiz Irratia, Euskadi Irratia, Bilbo Hiria, Radio Nervión, Bizkaia Irratia...
- » Entrevistas a artistas y personas invitadas al festival en varios medios de comunicación: El Correo, Deia, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Informativos de EITB...



Antolatzailea Organiza

ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA

Babesleak Patrocinan



Laguntzaileak Colaboran



Laguntzarekin Con la colaboración de





ZINE GOAK

*Eskerrik
asko!*

WWW.ZINEGOAK.COM

Bilboko LGBTQ+
21. Nazioarteko Zinema
eta Arte Eszenikoen Jaialdia

21º Festival Internacional
de Cine y Artes Escénicas
LGBTIQ+ de Bilbao

21st Bilbao International
LGBTIQ+ Film and
Performing Arts Festival